

jaietara Euskaltzaindiari dei dagio. Denon ordez Azkue jauna joango da.

Ta beste gairik izan ez da, otoitzez amaitu da batzañaldia.

Donostian, Eusko-Ikaskuntzaren gela nagusian, 1934-ko Urriaren 25-an.

Euskaltzain jaun auk bildurik daude: Azkue maipuru, Urkijo, Lakonbe, Intza, Altube, Eguskitza, Intzagarai. Urgazletatik: Ormaetxea ta Gorostiaga. Otoitz egin da.

I.— Aita Intzak *Euskaltzaindiaren laguntzaiñeak* izenez, diru pixka bat nai luke batzaldi bat gertutzeko, *Aufentzat euskal-ikaskera* gai bezela artu-ta. Erantzun zaio, lendik Euskaltzaindiak iragaña daukala batzaldi orixe ta gai berarekin. Lanak, datoñen Otsailarteraño bidali ditezke Euskaltzaindiko Bilboko gure etxera.

II.— Azkue jaunak dio Lopez Conde jaunarekin itz egin bear dala, Iztegi beñiaren irarpidez. Ganera, bere iritxiz, eskatu litzaioke eunetik amar bat gure alde. Beste euskaltzain jaunak erantzun diote, *amar bat* auxe, ezin eska litekela irarpen itunbena egiñik dagolakó.

III.— *Amputar, antifaz, apipar* ta beste itz batzuek zuzendu ta euskeratu ditugu.

IV.— Etxanotik Arantzeta'tar jaunak bialtzen digun eskutitza, Altube jaunak irakuñi du.

V.— Ormaetxea jaunak bere esakerak irakuñi dizkigu.

VI.— Aita Intzak ere bai, eritik - eri bildutako itz-euskaldunak.

VII.— Intzagarai-ek Lañakoetxea kalonje oñatiarñak bialitako lana. Lan onek euskal-itzak darakarzki.

Ta beste gai batzuek, bigaramonerako utzi - ta, otoitzez amaitu da batzañaldi auxe.

Donostian, Eusko-lkaskuntzaren gela nagusian, 1934-ko Urilaren 26-an.

Euskaltzain jaun auek bildu dira: Azkue maipuru, Urkijo, Lakonbe, Altube, Eguskitza, Intzagarai: urgazletatik Ormaetxea ta Gorostiaga. Otoitzez asi da.

I.— Gorostiaga jaunak bere lan bat irakuñi digu: *Sobre permutaciones de las consonantes l - b y otras.*

II.— Gorostiaga berak itz egin digu: *palabras vascas de origen arabe.* Ta euskerak beste izkuntzaz izan lezazkiken ikupenatzaz.

III.—Intzagarai-ek irakuñi ditu, Ormazabal jaunak, Astigañaga-ko apaizak, Zerañen bildu zituen euskal-itzen zerenda.

IV.— Azkue jaunak bere lan bat irakuñi digu: Oraintxe Altube jaunak egindako liburu baferi eran-tzupena: *Morfologia dala-ta.*

Ta beste gairik izan ez-da, otoitzez amaitu da batzañaldi auxe.
